

» zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskutik plaza arazatzen ditu. Tarte bikoitza idatzitako orrialde batean kabitu behar dute, eta BERRIAK moztuko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen eta herria adierazita: BERRIA, Martin Ugaldere Kultur Parkea, 30012 Andoain. iritzia@berria.info

AuBren agerraldia eskatu dute Batzar Nagusietan

Ekzer Batuak AuBren zerrendaburuaren agerraldia eskatu du, esplika dezan Batasunak Donostian aurkeztutako proposamena, Gipuzkoako Batzar Nagusietan, «legebiltzarreko egoitzan», eta Rafaela Romerok, PSEko Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkideak, ezeko biribila eman du, «*¿puesto que AuB en democracia no existe?*».

Horri ikusirik, adierazi nahi dut 65.000 gipuzkoarrek libreak eman dituela beren botoa AuBri, baina *demokrazia* honek ez du errespetu handirik agertzen herritar horiekin; ez omen dira existitzen demokrazian. Zergak ordaintzeko garaian existitzen dira; zergak dierri-gorrez ordaindu behar dituzte; baina boto eskubiderik ez dute; horretarako, ez dira existitzen. Hau da, betebeharrak izan badituzte, baina eskubiderik ez. Beraz, hemen, existitzen ez dena demokrazia da, *persona bat* boto bat printzipioa errespetatzen ez delako. PPK eta PSOEk *apartheid*-a inposatzen dutelako. Hori bai dela ezkerren balio moralak salzteza.

Ekzer Batuari: ondo dago agerraldia eskatzea; baina AuBren ordezkaritza Gipuzkoako lehen erakunde

bertan balego, emango litzuke beharrezko liratekeen esplikazio guztiak. Horregatik, eskatzen diogu gipuzkoarren borondatea errespetatzen Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Eta, zehazki, Ekzer Batuak usurpatutako AuBren bi besaluak dagozkie ordezkarien esku utzea; benetako demokrazian, herritarrek aukeraturako ordezkaritzak ordezkatua egon behar baitu erakundean.

Inazio Agirre Arregi
Gipuzkoako AuBren
zerrendaburua

Euskaldun eskuzabalaren bila

Euskara txikitari ikasteko zortea izan ez bazenuen, ongi ezagutzen duzu euskaltzariaren ikasitako kalean erabiltzeko egin behar den esfortza. Baina, haurtzaroan etxean edo eskolan ikasi bazenuen ere, ziur gaude baduzula aipatzen dugun esfortzaren berri, zure inguruko euskara ikasle saiatuek (eta askotan etsiak) zurekin komunikatzeko dituzten zailtasunak ikusi dituzulako, edo, agian, zu zeu beste hizkuntza bat ikasten eta erabiltzen saiatu zarelako.

Nafarroako Euskara Elkartearen Topaguneak esfor-

tzatu hori arintzeko bidea aurkitu du: Mintzakide egitasmoa. Baldintza bakarra dago martxan jartzeko: Iruñerrian dauden euskaldun eskuzabala aurkitzea. Izan ere, Mintzakide egitasmoak goi mailako urratsetan dauden ikasleei euskaldunekin mintzatzeko aukera eskaini nahi die. Horretarako, ikasleen eta euskaldunen zaletasunak, ordutegiak eta beste-lakoak kontuan hartuta, astean behingo jarduerak proposatuko die elkarrekin egiteko, elkarrekin euskaraz aritzeko.

Bilatzen ari garen euskaldun eskuzabala bazara, jakin ezazu ez duzula euskararen gramatika edo Euskaltzariaren arauak jakin behar parte hartzeko. Euskaraz komunikatzeko daukazu erraztasuna da ikasleak behar duena; gainerakoa euskaltzariaren ematen diote. Bestalde, sinesten dugu denok daukagula zer irakatsi eta zer ikasi. Mintzakide egitasmoan euskaldunek, euskararen berreskuratzea modu erraz eta praktikoki batez bultzatzea gain, aisialdia aberasteko aukerak aurkitu dituzte, eta baita gure kulturaz gozatzeko hainbat abantaila ere (sarrerak, deskontuak...). Zure eskuzabaltasunak sarria izanen du.

Iruñerriko euskara elkarte eta euskaltegi guztiek bul-

tzatutako ekimen hau laguntzeko gogoia besterik ez dugu eskatzen gutun honen bidez. Bilatzen ari garen euskaldun eskuzabala aurkitu badugu, deitu 948 073 206 telefonora edo etorri behean aipatzen diren informazio guneetara, eta Mintzakide egitasmoa koordinatzaileekin harremanetan jarriko zaitugu. Berak informazio gehiago emanen dizu eta, horren arabera, zehaztu ahalgo duzu zure parte-hartzea, zure egoerara egokitu. Laster arte.

Informazio guneak:

—Iruñeko Karrikiri elkarte (Xabier k. 2 bis, behea).

—Atarrabiako Karrikaluzeko elkarte (Ribed parkea 1).

—AEK-ko Iruñerria eta Iruñerriko euskaltegiak.

—IKAko Arturo Campion eta Sahats euskaltegiak.

Hauek dira Mintzakide egitasmoaren sustatzaileak: Karrikiri, Karrikaluzeko, Euskaldunon Biltoki eta Zaldiko Maldiko euskara elkarteak, Euskalerria Irratia, AEK, IKA, Zubiarte euskaltegia, NAPko Euskarazko Prestakuntza Bulegoa (Euskaltegia), Nafarroako Hizkuntza Eskola, Bai and By akademian eta Nafarroako Topagunea Euskara elkartearen Federazioa.

Oskar Zapata
Nafarroako Topagunearen
izena

» larrepetit

Begi bistakoa



AMETS ARZALLUS

Saharako basamortuan bi gamelu. Bi gamelu, baina biak alde banatara begira. Ipurdia atzean, muturra aurrean, batek Iparraldera luzatzen du begirada, eta Itegoaldera besteak. Eta bi gameluek elkar ikusten dute.

Asmakizuna lehen aldiz entzun nuen gameluen dohain ikusgarrietan sinesten hasi nintzen; bi konkorrer gainera 360 graduko ikus angelua, harrapa ezak! Baina ez. Ispuln joko bat izan zitekeela pentsatu nuen gero. Ezta ere. Lagun batek argitu zidan alde banatara begira zeuden bi gameluek parez pare zudela, elkarri begira.

Autobusean noala oroitu naiz basamortuaz, eta gameluen bistaz. Greenwicheko meridianoak zaitzen ditu autobusak erdiz erdi. Eta elkar ez ikustea da begirada den borroka. Nire gameluen gisan, Ekialdekoak Ekialderantz begira doaz, Mendebaldekoak Mendebalderantz, denak kanpora ihesi, elkarri ipurdia. Balaren bat jasoz gero, muturra, eta azkar, ipurdia, atzera. Batik bat Sahara aldekoa bada. Eta gamelua badirudi, zer esanik ez.

Fernando amezketarrak kurioso saldu zituen bi asto zuri Tolosako ferian. Ez gameluenenik eta ez pertsonarenik, bi asto batarik ez zuten bat ere, eta ezin, beraz, lanerako balia. Baina prezio normalean saldu zituen hala ere Fernando bi astoak. Ez aurrez interesatuari astoen berri ongi eman gabe: «kontuz gero, abisatzen diat, asto hauek gaitz bat ditek: elkar ikusi ezina». Baina erostuna ere itsua izan nonbait, eta etxera eramán zituen bi astoak autobusen batean sartuta.

» galde-eskeak



JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA, TXILLARDEGIA
IDAZLEA

Aspaldi ez dela, idazleen konpromisoaz jardun zenuen artikulu batean. Euskaraz idazteak konpromisoa adierazten al du?

Edorta Mendizabal

Argia astekarian idazlearen konpromisoaz esandakoa ongi gogoratzen zait, bai. Martin Ugaldere zenuen berriaren jokabidea hartu nuen eredutzat; Venezuelan gaztelaniaz arituta etorkizun eroso eta oheretsua izan arren, Euskal Herrira itzuli baitzen Martin, euskaraz idazteko eta euskal prentsa sustatzeko (*Egunkaria*). Hizkuntza desagertzeko arriskuan ez dagoen herrietan, badago, egon, idazlearen konpromisoa. Baina, kasu hauetan, idatzitakoaren mamia du gako. Ez idatz-tresnak berak. Gurean, aldiz, hizkuntza bera mehatxaturik dugularik, idatz-hizkuntzaren hautua ez da batere neutroa. Atzerritar inperialismoak inposatutako mintzairaz baliatzeak izari nabarmena ematen dio. Eta zapalduko herriaren mintzairaz egiteak, itzuletara, beste kolore bat, erabat kontrakoa. Euskal Herrian gaur erdaraz ala euskaraz idaztea ez da inondik ere ondorioz gabeko erabaki axala. Nahiz, gauden egoera soziolinguistikoa gaudelako, hain zuzen, aukera bakar hori erabat erabakigarria ez izan.

Bidali zure galderak iritzia@berria.info helbide elektronikora.

» www.berria.info

Batasunaren ekarpena baliagarria iruditzen zaizu bakea lortzeko?

BAI	% 87
EZ	% 13

Batasunaren proposamenak bakea lortzeko balio izateak ala ez, uste dut horrek garrantzi gutxi daukala. Hasteko, Batasunak eta hainbeste abertzalek «benetako bakea» deitzen diotena Espainiako Gobernuari ez zaio interesatzen. Esan ohi da «benetako bakea» lortzeko denek zerbait eman behar dutela. Espainiako Gobernuak ez du ezer ematekorik ETaren kontrako borroka irabazten ari den bitartean. Gainera, Euskadin edozer gauzak balio izateko PNVren sostengua eduki behar du, eta hemendik entzun daitezke PNVkoen barre-algarak. ① **Sevillatik**

Batasunak gerturatze bat egin du, aspaldi egin beharrekoa, baina ez da nahikoa! Bada ETA baztertzeko garaia, euskaldun guztiok batera gure herria babesteko! ① **Irakurle bat**

» hitz beste

Kasualitatez

ANJEL LERTXUNDI

«Taberna batean lagun baten zain nengoela, zerbaitekin entretenitu behar eta, zera irakurri nian halako periodikoan (irakurleak jar beza gehien gorrotatzen duenaren izena)...» Hori dioenak, kasualitateari egotzi nahi dio aipatu periodikoa hartu izana. Gauza bera egin du dioenak: «diariari eragiten ari ninduan, eta kasualitatez, halako irratian...». Bat zein bestea abisatzen ari zaigu garbi aratza dela bera, eta ez duela, kasualitatez ez bada, halako egunkaria irakurtzen, halako irratia entzuten. Radio Casuality deitzen diote kubatarrek errefuxiatu anti-kastristen Radio Marti-ri. *Kazuelakadea!* deitzen zion Urruzunok autobus bateko gastronomiok.

Gaitz errota dugu: kasualitatez ikusten ditugu programa arrosak, kasualitatez burutzen lotsatzen gaituzten gauzak. Kasualitateari hainbestearinoko lana ematen badiogu, nola tokatuko zaigu loteria?